

Multimedia-komunikaziorako diseinu grafikoa¹



Simón Peña Fernández
Daniel García González

UPV/EHU
Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea
Kazetaritza II Saila

¹ Lan hau Creative Commons-en Nazioarteko 4.0 lizentziaren mendeko Azterketa-Ez komertzial Partekatu lizentziaren mende dago. Lizentzia horren kopia ikusteko, sartu https://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/4.0/deed.es_ES/ helbidean.

1. Kazetaritza, diseinu grafikoa eta infografia

1.1. Definizioa

Azken urteotan diseinu grafikoaren eta infografiaren presentzia komunikabideetan modu nabarmenean indartu da, informazio konplexua modu sintetiko eta eraginkorrean adierazteko duten gaitasunagatik. Eguneroko kazetari-jardunean testuek eta argazkiek gertaera konplexuak eta datu korapilatsuak irudikatzeke izan ditzaketen mugak, infografikoek arazorik gabe gainditzen dituzte.

Modu zabal batean definituta, infografiko batek datuak eta irudiak uztartzen ditu, pertsona eta erakundeei haien mezuak modu laburrean adierazten laguntzeko. Kazetaritza haratago, publizitatearen eta enpresaren munduan ere baliabide arrakastatsua izan ohi dira. Definizio formalago bat erabiliz gero, infografiko bat datuen edo ideien bisualizazio bat dela esan daiteke, ikusleriari informazio konplexu bat azkar kontsumitzea eta erraz ulertzea ahalbidetzen diona (Smiciklas, 2012: 5).

Edonola ere, esanahi anitzekoa izan dugu 'infografia' hitza. Akronimo hau, ingelesezko 'infographics'-etik dator, zeinek 'information graphics' hitzak dituen oinarri. Haren erabilera 80ko hamarkadaren bukaeran hedatzen hasi zen, egunkarien erredakzioak ordenagailuz betetzen hasi ziren garaian.

Hori dela eta, bi zentzu ezberdinekin erabili izan da kontzeptua, nahasmen terminologiko bat eraginez. Infografiaren lehen esanahia ordenagailu bitartez egindako animatika modernoari dagokio; hor, 'info' aurrizkia 'informatika'ri dagokio, eta 'grafia', berriz, animazioari. Horrela jasotzen du Espainiako Errege Akademiak. Haren arabera infografia "ordenagailu bitartez irudiak sortzeko teknika" dugu, edo baita "aipatutako teknika horren bitartez lortutako irudia ere". Hau izan da erabilerarik ohikoena ingeniartzan, diseinu profesionalean, informatikan eta antzeko arloetan.

Bigarren esanahia, ordea, 'informazioa' eta 'grafikoa' terminoak bat egitetik dator (De Pablos, 1998: 2; Borrás, 2000: 2), non erroak irudien bitartez adierazitako informazioa adieraziko lukeen, eta ez baliabide informatikoen bitartez egindakoa.

Azken bi arlo hauen uztartzetik ulertu behar da, beraz, infografiaren jatorria kazetaritzaren eta komunikazioaren arloan, hau da, informazio bat transmititzeko edozein motatako baliabide grafikoak –marrak, mapak, organigramak– erabiltzen dituen teknika. Termino hau irudi horiek sortzeko lana zein grafikoak berak izendatzeko erabili izan denez, bigarren horiek lehenengoarekin ez

nahasteko, infografikoak deituko ditugu, eta infografia kontzeptua horiek sortzeko teknika izendatzeko utziko dugu.

Alberto Cairok nabarmentzen duen bezala, infografia ez da diseinua edo ilustrazioa soilik, baina bi arlo hauetara modu estu eta berezian lotuta dago. Diseinuaren adarretako batek, informazioaren diseinuak, beste edozein arlok baino gertuagoko harremana du infografiarekin; informazio kopuru erraldoia (estatistikoa, adibidez) antolatu eta adierazten du elementu bisualen bitartez (Cairo, 2008:15).

Haatik, komunikazioaren alorreko infografiaren sorburua ezin da informazioaren diseinuarekin duen harremanean bakarrik ulertu. Gertaerak azaltzeko ahaleginean, kazetaritza-irizpideek infografiagilearen bide-erakusle bezala jokatu behar dute, hitzen amaraun batean lausotuko liratekeen gertaera korapilatsuak irakurlari modu erraz eta intuiziozko batean azaltzeko. Zenbakiz jositako informazioak, eguraldiaren iragarpenak, enpresa eta erakundeen egiturak, burtsaren kotizazioak eta beste hainbat, modu argiago batean adierazten dira ilustrazioez testu hutsaren erabilera gordinaren bitartez baino. Haien presentziak, gainera, diseinuaren aniztasuna eta erakargarritasuna bultzatzen du.

Infografia hutsune bat betetzeko baliabide bisual bat baino askoz ere gehiago da, ezbairik gabe. Gai bat xehetasun osoz lantzeko duen gaitasunagatik, bere izaera kazetaritza-genero klasikoekin parekatu daiteke. Gutxi dira baliabide honen bitartez adierazi ezin diren ekintzak eta gertaerak.

Laburbilduz, infografia bat –komunikabideen arloari dagokionean behintzat– ekarpen informatibo bat da, elementu ikoniko eta tipografikoekin egina, gertaerak, ekintzak edo gaurkotasuna ulertzen laguntzen duena, eta testu informatiboa lagundu edo ordezkatzeko duena (Valero, 2000).

1.2. Historia laburra

Elementu bisualekiko kezka kazeten bidaide izan da kazetaritza modernoaren hastapenetatik. Lehen egunkarien agerralditik hasita (XVIII. mendearen hasieran) topa daitezke haien erabileraren adibideak; *The Daily Courantek* (1702) Cádizko badiari buruz argitaratu zuen mapa famatua, esate baterako. Ez dago argi zein izan zen egunkari batean historian argitaratutako lehen infografikoa, baina informazioaren azalpen bisualak —hasiera batean, mapak eta grafikoak nagusiki, ekoizpen-prozesuek ezarritako oztopoengatik— ibilbide zabala du prentsan ere.


Adibidez, 1869ko infografiko hau sortzeko agerikoa da ez zela beharrezkorik izan inolako ordenagailurik zein bestelako teknologiarik erabiltzea.



XIX. mendean zehar adibide egokiak aurkitu daitezkeen arren, infografiaren eztanda XX. mendeko bi mundu-gerren ondorioz iritsi zen. *Der Spiegel* Alemanian, *The New York Times* AEBn, eta *The Sunday Times* Erresuma Batuan izan ziren 50eko hamarkadatik aurrera elementu grafikoan erabilera aurreratuenetakoa egin zuten argitalpenetako batzuk.

Infografiak gaur egun bizi duen loraldira iristeko azken bultzada, dena den, ez zen XX. mendeko 80ko hamarkada arte iritsi. Batetik, informatikaren hedapenak eta lehen programa grafikoan erabilerak aurrerapen handia ekarri zuten irudien lanketan. Bestetik, ordenagailuen hedapenak ekoizpen-prozesuetan denbora nabarmen aurrezteka ekarri zuten, eta hori ezinbestekoa da kazetaritzan, egun batetik besterako lana eskatzen baitu. Hala, ezohiko elementu bat izatetik eguneroko baliabide bat izatera pasatu ziren infografiak.

Alor horren bilakaera, bestalde, ezin da ulertu *USA Today* (1982) egunkariaren eragin iraultzailea aipatu gabe. AEBko herrialde mailako egunkari hori izan zen infografikoak modu intentsibo batean lantzen hasi zen erreferentziazko lehen argitalpena; irudiei garrantzi handiagoa eman zien, eta testu laburragoekin lagundu zituen. Baina, gerora, infografiaren historiara eraman duen ezaugarria izan da egunkariaren koaderno bakoitzaren azalean infografiko bat argitaratzen hasi izana. Ordura arte inoiz eman ez zitzaion protagonismo bat eskaini zion infografiari, oraindik ere informatika gutziz hedatu gabea zen garai batean. Horren adibide, eguraldiaren informazioari hiru dimentsioko mapen bitartez eskaintzen zitzaion arreta berezia azpimarratu daiteke.



2. IRUDIA

USA Today egunkariaren lehen alea 1982ko irailaren 15a



Ordenagailuen agerpenarekin, baita geroago bektoreen bidezko marrazketako zein argazki tratamenduko aplikazioekin ere, erraztu egin zen infografikoak sortzeko modua. Horrela, 1990eko hamarkadaren hasieratik infografikoak ugarituz joan dira inprimatutako egunkarien orrialdeetan, eta gaurko irakurlea erabat ohitu da horiek irakurtzera. Gaur egun oso bakanak dira infografiarik gabeko hedabide inprimatuak.

1991n, Golkoko Gerran zehar, mundu osoko komunikabide inprimatuek gatazkaren inguruko edozein motatako irudien premia handia izan zuten haien informazioak ilustratu ahal izateko. Argazkien gabezia eta izandako zentsura zirela-eta, gerraz jardutean infografikoen erabilera asko hedatu zen. Tradizionalki onartu da horixe dela inflexio-puntua, handik aurrera infografiak bere lekua irabazi baitzuen mundu osoko egunkarien orrialdeetan.

Beraz, historiari egindako errepaso labur honek agerian uzten duenez, infografia ezin da baliabide informatikoen erabilera soil batekin identifikatu, hitzaren etimologiak kontrako ustera eraman gaitzakeen arren. Nahiz eta lehen garaietako prozesu teknikoek konplexutasunak eguneroko informazioaren berehalakotasuna eragozten zuen, prentsaren jatorrian bertan aurkitu daitezke marrazki informatiboak. Zalantzarik gabe, hori bai, ordenagailuen aroak diseinu grafikoaren eta infografiaren urrezko aro bat sortu du, eta, haien erabilera bultzatuz eta sustatuz, baita izena eman ere.

2. Infografiaren ezaugarriak

2.1. Infografiko motak


Diseinu grafikoan bezala, oro har, komunikabideetan ere informazio mota ugari adieraz ditzakete infografikoek: estatistikak, prozesuak, erakunde-egiturak, ideiak, kronologiak, geografia, hierarkia, harremanak... Hortaz, sarri erabili ohi dira gerrak eta ekintza militarrik azaltzeko, kirol-gertaera nagusietan, hondamendi eta istripuetan, hauteskundeetan, eta abar.

Paperezko egunkarien hastapenetatik erabili izan dira infografikoak, inprimatutako komunikabideetan informazio mota batzuk askoz azkarrago eta eraginkorrago transmititzen baitira irudien bidez erakutsiak badira, hitzetan bakarrik kontatuak badira baino. Hori dela eta, kazetaritza-infografiaren leloa "*Show, don't tell*" da –"Ez kontatu, erakutsi baizik"–. Komunikabideetako informazioko mami eta datu asko hitzekin transmititzea oso zaila edo ia ezinezkoa litzateke, eta, ordea, erraz uler daitezke infografiko simple batez adierazita.

Komunikabideen eguneroko lanean, infografikoak osagarriak izan ohi dira gehienetan, eta testu nagusi baten alboan jartzen dira. Gehigarri bisualek hauek hartzen duten formaren arabera, honako tipologia hau ezar daiteke:

2.1.1 Estatistika-grafikoak: Ohikoenak dira, eta informazio numerikoa eta estatistikoa irudikatzen dute, zenbakien islatze hutsarekin baino era eraginkorragoan. Kantitateen arteko konparazioak errazten dituzte, besteak beste, denboran zehar diren eboluzioak ikustea. Horien artean, erabilienak honako hauek ditugu:


- Zutabe-grafikoak: Unitateak adierazteko erabiltzen dira, eta zenbait dimentsioren arteko konparazioa egiten laguntzen dute. Grafikorik egokienak dira kantitateak konparatzeko edo bilakaeraz jabetzeko.




3. ETA 4. IRUDIAK

Barrak kantitateak konparatu ahal izateko erabiltzen dira

Iturria: GARCÍA, Daniel




- Gazta-grafikoak: Osotasun baten zatiak adierazten dituzte, eta haien arteko proportzioak ulertzen laguntzen dute; ehunekoen bitartez, nagusiki.



5. IRUDIA. *Gaztak edo tartak*

Iturria: GARCÍA, Daniel

- Lerro-grafikoak: Zenbakiaren bitartez denboran zehar izandako aldaketak adierazten dituzte. Eboluzioek edo *sukarrek* balio zehatz batek denboran zehar izandako aldaketak islatzen dituzte.



6. IRUDIA

Lerro-grafikoak, eboluzioak edo sukarrak

Iturria: GARCÍA, Daniel

2.1.2. Mapak, krokisak, planoak eta kokatzaileak: ekintza non gertatu den erakusteko erabiltzen dira, eta informazioa ulertzeko oinarritzko testuinguru bat eskaintzen dute. Nazioarteko albisteetan, kokapen orokorra izan ohi dute, baina, tokiko informazioan, xehetasunez bete ohi dira.


Gizakiek betidanik leku zehatz baten kokapen geografikoa, eremu jakin baten tamaina erlatiboa edo izenak komunikatu behar izan dituzte. Errealitate geofisiko baten islatze sinplifikatuak ditugu mapak. Komunikabideetan erabil ditzakegu, gainera, ondoko informazio-kontaktaren oinarritzko datuak kokatu eta laburbiltzeko.

Irakurleak ezagunak dituen eskualde edo espazio batzuetatik hasita (kasu honetan Kantauri Itsasoaren kostaldea), egileak errealitate berriak – ezezagunak– koka ditzake bertan, informazio berria komunikatzeko (komertzio-bideak gorritz gainjarri dira). Infografia-mapetan beti testuinguru jakin bat erabiltzen da oinarri gisa istorio edo datu berriak beraren gainean kokatzeko.



Mapak (Erromatarren komertzio-bideak Kantauri aldean K.o. I. mendetik V.era arte)
Iturria: GARCÍA, Daniel. Bizkaiko Arkeologi Museorako prestatutako mapa

2.1.3. Mapa estatistikoak: Mapen irakurgarritasuna eta bestelako elementu ikonikoen argitasuna uztartzen dituzte, datuak eta zenbatekoak hobeto transmititzeko.





8. ETA 9. IRUDIAK
Mapa estatistikoak
Iturria: GARCÍA, Daniel

- 2.1.4. Taulak: Datu deskriptiboak adierazten dituzte gainerako grafiko moten erabilera gomendagarria ez denean; adibidez, datuak elkarren artean erraz konparatu edo gurutzatu ezin direlako. Zenbakiak kategoriatan sailkatuz irakurgarritasuna errazten dute.
- 2.1.5. Diagramak: Guztien artean konplexuenak dira, zerbaitek nola funtzionatzen duen esplikatzeko. Edonolako errealitate fisikoak deskribitzeko aukera ematen digute; adibidez, eraikinak, objektuak, mekanismoak, eta abar. Barrualdea edo zatiak islatu edo sinplifika ditzakete, beste inolako irudi motak egin zezakeen bezala.
- 2.1.6. Organigramak: Kontzeptuak organizatu eta hierarkizatzeko zein prozesu baten faseak deskribatzeko balio dute organigramek.

Zentral nuklearrak Asian

Guztira **437**
erreaktore daude
martxan munduan,
hautetako **112 Asiako**
zazpi herrialdetan




	ERREAKTOREAK MARTXAN	ERAIKITZEN	EKOIZPENA 2009	
			GUZTIRA TWh	%
1 AEB	104	1	796,8	% 20,1
2 Frantzia	58	1	390,0	% 75,1
3 Japonia	54	1	260,1	% 28,9
4 Errusia	31	9	153,0	% 17,8
5 Hego Korea	20	6	141,1	% 34,7
6 Erresuma Batua	19	—	62,4	% 17,4
7 Kanada	18	—	85,3	% 14,8
8 India	18	5	14,8	% 2,1
9 Alemania	17	—	127,6	% 26,1
10 Ukraina	15	2	77,8	% 48,6
11 Txina	11	21	70,1	% 1,9
12 Suedia	10	—	50,0	% 37,4
13 Espainia	8	—	52,9	% 17,6
14 Belgika	7	—	45,0	% 51,6
15 Txekiar Err.	6	—	25,7	% 33,7
16 Taiwan	6	2	41,6	% 18,1
17 Suitza	5	—	26,3	% 39,5
18 Eslovakia	4	2	13,1	% 53,5
19 Finlandia	4	1	22,6	% 32,8
20 Hungaria	4	—	14,6	% 42,9
21 Argentina	2	1	7,6	% 6,9
22 Brasil	2	—	13,0	% 2,9
23 Bulgaria	2	2	15,3	% 35,9
24 Mexiko	2	—	10,1	% 4,8
25 Pakistan	2	1	2,6	% 2,7
26 Errumania	2	—	10,8	% 20,6
27 Hegoafrika	2	—	11,6	% 4,8
28 Armenia	1	—	2,3	% 44,9
29 Eslovenia	1	—	5,5	% 37,8
30 Holanda	1	—	4,0	% 3,7
31 Lituania	1	—	10,0	% 76,2
32 Iran	-	1	-	% -

Iturria: OIEA / Foro Nuclear

10. IRUDIA

Datu-taula


Iturria: GARCÍA, Daniel.



11. IRUDIA

Diagrama: Elorriotik Teilmendirako ibilbidea

Iturria: GARCÍA, Daniel.



12. IRUDIA

Organigrama: urte txinatarren kalkulurako taula

Iturria: GARCÍA, Daniel.



2.1.7. Multigrafikoak: Nahiz eta hitz bera –infografikoa– oso ezberdinak diren irudiak izendatzeko erabiltzen dugun –adibidez estatistikako grafiko txiki bat zein orrialde osoko informazio ilustratu eta konplexua–, agerikoa da bigarren kasu horretan bakarrik informazio-genero propio eta independente baten aurrean gaudela.

Barcelona's Natural Wonder

Financed entirely through private donations and tourist revenue, the Sagrada Família is inching closer to completion. A look at the church's form and design reveals a marvel of imaginative—and unprecedented—engineering.

Symbolic Towers
The architect envisions the church's primary towers as representational forms of Christendom's most important figures: Jesus, Mary, and the Holy Spirit.

Grand Facades
Each of the church's three facades depicts an event in the life of Christ. The facade facing Sagrada Família's main square is the Passion facade, the one opposite is the Nativity facade, and the one in between is the Glory facade.

An Inlier Forest
The tower's design is based on the lush forest and all its other elements. The tower's design is based on the lush forest and all its other elements.

A Work in Progress
Here are some key dates in the church's construction.

Design by Nature
Gaudí pioneered an architecture based on nature's geometric forms. Structural and ornamental, they reflect his native region—and ingenuity.

Structures
Having observed their functional perfection in nature, Gaudí used twisted surfaces and curved planes as the organic basis of his buildings. His columns, arches, and stairways all stem from this notion of natural design.

Columns
In his quest for a natural column, Gaudí looked to the hollow growth of many plants—columns that are never heavier at the top than at the bottom. The Sagrada Família's columns are like these: they are thicker at the base and taper as they rise.

Other Structures
Arches Follow Gravity
All of Gaudí's arches feature catenary profiles, which form naturally in gravity and are stable when a rope is hung to assume the least configuration of the structure's arches. Gaudí found, in nature, the perfect model for his arches.

How It Works
To see how Gaudí's towers work, imagine the weight distribution of a tree. The trunk is thicker at the base and tapers as it rises. The same principle applies to the Sagrada Família's towers.

Double Roof
Gaudí's towers feature a double roof, a design that allows the towers to support their own weight and still have light.

Spiral Stairways
Found in plants, animals, and planetary systems, spirals are a recurring architectural theme in Gaudí's work.

Leaflike Roofs
Gaudí took the structure of a leaf as his model. The leaf's veins are like a network of pipes that carry water and nutrients throughout the leaf. Gaudí's towers are like this: they are thicker at the base and taper as they rise.

Tree Structures
To create the church's towers, Gaudí looked to the structure of a tree. The trunk is thicker at the base and tapers as it rises. The same principle applies to the Sagrada Família's towers.

Pinacles of Detail
Gaudí's towers are like trees. They are thicker at the base and taper as they rise. They are like trees. They are thicker at the base and taper as they rise.

Timeline:

- 1883 Gaudí becomes chief architect of the church.
- 1885 Gaudí dies in Barcelona.
- 1926 The Spanish Civil War begins. Many of Gaudí's 20 models are burned.
- 1938 The civil war ends. Construction begins again based on remaining models.
- 1992 Barcelona hosts the Summer Olympics, boosting architectural interest in the church.
- 2019 Pope Benedict XVI announces the papal canonization of Gaudí.

13. IRUDIA

Multigrafikoa: Barcelona's natural wonder
Iturria: National Geographic Magazine (2010)



Megagrafikoak edo multigrafikoak istorio zehatz bati aurre egiten dio, hura sakonki ikertuz eta haren ikuspegi informatiboa agortuz, batzuetan ohiko elementu testualak bazterturik ere. Kasu horietan, grafikoak baino gehiago benetako erreportajeak direla esan genezake. Halako infografikoek genero horren erakusgarririk gorena erakusten digute.

Infografiko horietan goian aipatutako gainerako grafiko mota guztiak erabili dira mezu orokor bat osatzeko. Diagramak, taulak, mapak eta abar uztartu egiten dira istorioa osatzeko.

Genero horrek izan dezakeen konplexutasunaren eta aberastasunaren adibide, *National Geographic* aldizkariaren "Barcelona's Natural Wonder" infografikoa dugu, Familia Santuaren tenpluari buruzkoa (katalanez, Sagrada Família). Irudien bitartez, xehetasun osoz deskribatzen da Antoni Gaudíren obraren gaur egungo egoera eta etorkizuneko bilakaera, hitzen bitartez eskuratzen oso zaila izango litzatekeen erretratu bat osatuz.

Aldizkariaren orrialde bikoitz horretan, besteak beste, tenpluaren bi oinplano agertzen dira, hiru kokapen-mapa, kronograma bisual bat eta elementu arkitektonikoen azalpena egiten duten hainbat diagrama, testuz lagunduak.

- 2.1.8. Eta ilustrazioak?: Egia da infografikoek irudi osagarriak ekar ditzaketela, askotan oso erakargarriak eta haien funtzio estetikoaren sustatzaileak direnak. Baina infografikoak ilustrazioetatik ezberdindu behar ditugu.

Komunikabideek tratatutako gai zehatz baten interpretazio artistiko edo alegorikoa dugu kazetaritza-ilustrazioa. Diseinua indartzea eta orrialdearen testu soilaren irakurketa monotonoa arintzea du helburu. Oro har argazkiaren ordezkio izaten dira, eta gaur egungo irakurlearen irudien beharra asetzen dute, bereziki gero eta gehiago egunkaria *irakurtzera* baino gehiago *begiratzera* ohitzen ari baitira. Ondorioz, orrialdea apaintzeko edo dotoretzeko funtzio estetikoa daukate. Egunkari bakoitzak bere itxura eta diseinua lehiakideenetik ezberdintzeko erabil dezake.

Infografikoak, ordea, informazio bat transmititzea edo gertakizun zein datu batzuk azaltzea du helburu. Eta bakarrik bigarren mailako jomuga gisa –inola ere funtsezkoa– irakurlearen arreta erakartzea elementu estetiko edo artistikoekin. Erakartzeko azpifuntzio horri lehentasuna emateak, informatzearen gaineratik, produktu misto eta nortasun gabekoak sortzea dakar. Egungo irakurleak badaki ezberdintzen *datuen apaintze* huts hori benetako informazio-generoa den infografikotik.

2.2. Infografikoen elementuak

Paperean bezala, infografia digital bat bi eratakoa izan daiteke. Alde batetik, informazio baten osagarria izan daiteke, eguneroko kazetaritzan funtzio ohikoena dena. Kasu horietan, infografia batek gertaera baten datuak argitzen edo osatzen ditu, eta paperezko egunkarietan erabilitako infografiko mota klasikoen berdina da.

Baina, komunikabideetan, infografiaren izaera ez da funtzio osagarrietara mugatzen, ezta gutxiagorik ere. Elementu lagungarriak izateaz gain, infografiak elementu konplexuak izan daitezke, informazio bat kontatzen duen eta nortasun propioa duen kazetaritza-genero baten ezaugarri guztiak dituztenak (Yuste, Sandoval eta Franco, 2006).

Gaurkotasun nahikoa duen gertaera batean —eta irakurleari informazio bat eskaintzea helburu izanik—, infografia batek testu mota klasikoen lekukoa har dezake kontakizuna egiteko; izan ere, ondo definitutako egitura bat izan dezake, berezko zentzua du, ez du mendekotasunik bestelako elementuekiko, eta arlo bisualari protagonismo berezia eskaintzen dio.

Bestalde, prentsan gertatzen den bezala, infografiko batek bere osotasunean deskriba dezake albistea edo informazioa, gertaeraren kontakizuna egiteko genero espezifikoa bat balitz bezala (Yuste, Sandoval eta Franco, 2006). Horrelako lanak sortzeko, ordu asko behar da, eta horrek eguneroko gaurkotasunetik —edo gaurkotasun “gogorretik”— aldentzen ditu infografikoak, eta gaurkotasun iraunkorreko —edo “biguneko”— auziekin lotzen da. Prentsan, eguneroko dinamikatik kanpo gehigarri berezietan edo aldizkarietan aurki daitezke, eta, era berean, Interneten ere interesa denbora luzez mantentzen duten gertaeratarako erabili ohi da infografikoa, bai ezohiko garrantzi informatiboagatik, baita ikusgarritasunagatik ere.

Illo horretan, bereziki konplexuak diren gaiak eta prozesuak azaltzeko, testu-genero hutsen gainetik, datu kopuru mardulen adierazpen sintetiko bat egin dezake infografia batek. Arlo bisualaren lanketatik haratago, ezaugarri horrek beste erronka bat gehitzen dio infografiagilearen lanari, non informazio iturrien eta jasotako datuen lanketak eta zehaztasunak berebiziko garrantzia duten.

Infografia “oso” edo “protagonista” horiek, beste edozein kazetaritza-generok bezala, titulu bat behar dute, ahal bezain adierazkorra; sarrera moduan, testu argitzaile labur bat, grafikoa ulertzeko ezinbesteko testuingurua eskaintzen duena; gorputzak, irudiz eta testuz osatua, oinarritzko galderak erantzun behar ditu; eta, amaieran, erabilitako informazio-iturriak aipatuko dira. Nolanahi ere,

gaitasun informatibo osoko infografikoek ez dute alboko testu baten laguntza izaten kontakizuna egiteko.


Horrela, infografiko batek honako elementuak izan ditzake:

2.2.1. Titulua

Grafiko guztiek esanahi propioa dute. Irakurtze-unitate oso gisa tratatu behar dira. Horrela, egokia da buruan titulu batekin hastea –artikuluaren mamia laburbilduz– eta, hala behar izanez gero, azpтитulu batekin azalpen hori biribiltzea. Infografikoaren barruan zati ezberdinak agertzen badira, horiek ere bere titulua izan beharko lukete.

Titulua

Infografikoaren laburpen-testuak istorio osoa deskribatu behar du. Beharrezkoa bada, azpтитulu ere erabil daiteke



Bigarren mailako tituluak

Infografikoaren zati ezberdinen mamia laburtu edo markatzeko. Kasu honetan, bi zati

14. IRUDIA

Tituluaren adibideak. Infografikoak zati bat baino gehiago badu, bakoitzak bere burukoa behar du

El vertedero más deseado. Iturria: El Correo (2011ko martxoaren 6a)


2.2.2. Irakurketa-ordena

Infografikoaren bigarren oinarrizko osagaia bistaratze-ordena dugu. Idatzitako testua arruntak ordena aldaezina dauka –eskuinetik ezkerrera eta goitik behera gure mendebaldeko kulturen–, baina grafikoaren kasuan ez da horren aurreikusgarria. Irakurleak bide anitzi jarraitu diezaieke grafikoari heltzean.

Horregatik, infografikoa planteatzerakoan, kontuan hartu beharko dugu irakurle bakoitzak ordena batean ikusi eta arakatuko duela, eta irakurketa hori edozein puntutan amaituko duela. Horrek behartzen gaitu kontu handiz aritzera informazio testualak idaztean, esaldi ezberdinen arteko dependentziak ulergarritasuna zaildu baitezake. Kontrako aldetik, irakurketa-ordena zehatz bat beharrezkoa dugunean mezuaren jarraipena bermatzeko, zenbakiak, binetak, geziak zein bestelako elementu ikonografikoak erabili beharko ditugu ibilbide hori esplizituki adierazteko. Mendebaldeko gure kulturaren ezkerretik eskuinera eta goitik behera egin beharko dugu hori, posiblea denean.

Irakurketa ordena

Infografikoaren elementuak irakurlearen begiak gidatu behar dute era natural batez



15. IRUDIA

Irakurketa-ordenaren adibidea. Infografikoaren osagai grafikoaren pisu bisualaren arabera jarraituko diote istorioari irakurlearen begiek

Bilboko Isozaki Ateko proiektua. Iturria: *Gremios de la Construcción* (2005eko urtarrila)

2.2.3. Osagai grafiko nagusia

Infografikoa irakurtzeari lotzean, irakurlearen begiek hartuko duten norabidea elementu grafiko nagusiak baldintzatuta izango da. Bai bere tamaina bikaina

izateagatik bai bere kontraste kromatikoagatik, infografikoaren osagai bat gainerakoetatik nabarmentzea komeni da. Berez, grafikoaren titulua irakurri baino lehen ikusiko da elementu hori; horregatik, bi helburu garrantzitsu bete behar ditu: alde batetik, eszena osoaren abiapuntu nagusia zein den iragartzea eta, bestetik, gainerako informazio edo menpeko grafikoak ordenatzea, hierarkikoki zein bisualki. Horregatik, infografikoaren prestaketan garrantzi handikoa dugu elementu grafiko nagusi horren hautatze zuzena.

Juan Pablo II descansará en las Grutas Vaticanas de la basílica, «probablemente» en el sepulcro que ocupó Juan XXIII antes de que fuera beatificado

A pocos metros de San Pedro

LA BASÍLICA DE SAN PEDRO. El papa Juan Pablo II se descanzará en las Grutas Vaticanas de la basílica, «probablemente» en el sepulcro que ocupó Juan XXIII antes de que fuera beatificado.

LA GRUTA DE SAN PEDRO. El papa Juan Pablo II se descanzará en las Grutas Vaticanas de la basílica, «probablemente» en el sepulcro que ocupó Juan XXIII antes de que fuera beatificado.

LA GRUTA DE SAN PEDRO. El papa Juan Pablo II se descanzará en las Grutas Vaticanas de la basílica, «probablemente» en el sepulcro que ocupó Juan XXIII antes de que fuera beatificado.

Relato de cuatro NÁUFRAGOS

Una familia alemana sobrevive, sin agua ni alimentos, en una balsa a la deriva durante diez días, tras hundirse su yate en el Cantábrico. Esta es su historia

Por Raquel Colla. Colaboración G. Reppetto

LA GRUZA DE LOS HOFMANN. Una familia alemana sobrevive, sin agua ni alimentos, en una balsa a la deriva durante diez días, tras hundirse su yate en el Cantábrico. Esta es su historia.

LA GRUZA DE LOS HOFMANN. Una familia alemana sobrevive, sin agua ni alimentos, en una balsa a la deriva durante diez días, tras hundirse su yate en el Cantábrico. Esta es su historia.

LA GRUZA DE LOS HOFMANN. Una familia alemana sobrevive, sin agua ni alimentos, en una balsa a la deriva durante diez días, tras hundirse su yate en el Cantábrico. Esta es su historia.

EL RECENTO FERNAL MÁS AVANZADO DE EUROPA

EL RECENTO FERNAL MÁS AVANZADO DE EUROPA. El nuevo cementerio de San Sebastián, diseñado por el arquitecto vasco Juan María Domercq, es un espacio moderno y funcional que integra naturaleza y arquitectura.

EL RECENTO FERNAL MÁS AVANZADO DE EUROPA. El nuevo cementerio de San Sebastián, diseñado por el arquitecto vasco Juan María Domercq, es un espacio moderno y funcional que integra naturaleza y arquitectura.

EL RECENTO FERNAL MÁS AVANZADO DE EUROPA. El nuevo cementerio de San Sebastián, diseñado por el arquitecto vasco Juan María Domercq, es un espacio moderno y funcional que integra naturaleza y arquitectura.

Osagai nagusia
 Infografiko bakoitzak elementu batek nagusitasuna izatea behar du. Istorioaren gainerako informazioak horren arabera ordenatuko dira

16., 17. ETA 18. IRUDIAK
Osagai nagusiak infografikoetan.
 Iturriak: *El Correo* (Joan Paulo II.aren heriotza; 2005eko apirilaren 5a, eta 2000ko uztailearen 5a) eta Bilbao Exhibition Center; *Gremios de la Construcción* (2005eko iraila)




2.2.4. Sarea

Infografikoaren osagaien arteko proportzioak konparatu eta ulertu ahal izateko zein informazioak kokatzeko eta testuinguratu ahal izateko erabiltzen dugun sistema da *sarea*. Definizio abstraktu horren barruan sartzen ditugu testuinguru bisual koherente bat osatzeko erabilitako baliabide osagarri guztiak, zeinen gainean gainerako osagarriak –horiek bai, informatiboak– kokatuko diren, azken horiek ondo uler daitezzen. Adibidez, grafiko estatistiko baten sarea atzeko koordenatuen matrizea litzateke, datuen oinarria. Mapa batena proportzioen eskala edo erabilitako proiektzio kartografikoa litzateke. Eszena bat marrazteko erabilitako ikuspegia –zeina gehienetan axonometrikoa ala konikoa izango den–.


Ikuspegi axonometrikoa

Marrazkiaren formak sinplifikatzen dira eta guztiak antzeko angeluekin osatuta daude



Ikuspegi konikoa


Gure begien perspektibaren tridimensionaltasunaren efektua imitatzen du. Marra paraleloek zerumugako puntu batean topo egiten dute



19. ETA 20. IRUDIAK

Bi ikuspegi motak

El vertedero más deseado. Iturria: *El Correo* (2011ko martxoaren 6a) eta Bilbao Exhibition Center; *Gremios de la Construcción* (2005eko iraila)



21. IRUDIA

Infografiko estatistiko baten sarearen adibidea

Iturria: GARCÍA, Daniel

2.2.5. Iturria eta kredituak

Infografiko guztietan derrigorrezko osagaia dugu, orobat, erabilitako informazioaren iturriaren aipamena, hala nola sinadura edo kredituak, irudiaren autoretza adierazteko.

3. Multimedia-infografikoak

3.1. Ikus-entzunezko komunikabideetako infografikoak

Horrela deitzen ditugu paper edo bestelako euskarri inprimaturik erabili beharrean telebistaren pantailan, ordenagailuaren monitorean, telefonoan, baita beste edozein gailuren pantailan erreproduzituak izaten direnak, batzuetan, gainera, audio-dokumentuz aberasturik. Mota honetako grafikoak erabiltzen dira kazetaritzan telebistako albistegi zein dokumentaletan, kasurako, baina era berean publizitatean aurki ditzakegu, hala nola museoetan zein mota guztietako panel elektroniko informatiboetan.

Infografiko horien guztien ezaugarriak bereizgarriena dimentsio berri baten agerpena da; denbora faktorea, hain zuzen. Alderdi horren eraginak infografikoaren izaera guztiz eraldatzen du, zeren eta, inprimatutako infografian geneuzkan baliabide gehienak aprobetxatzeaz gainera, infografiagileak ere bere esku baitauzka ikus-entzunezko diskurtsoak eskaintzen dituen aukerak: kontatutakoa *gertatzen* da, mugitzen da espazio higitokor eta aldakor baten gainean. Ikus-entzunezko infografikoa, beraz, bizirik dago ikus-entzulearen begien aurrean. Kontatutakoa segidako fasetan antolatzea ahalbidetzen du, baina, bestalde, beraren mezuak muga batzuk dauzka; ikus-entzunezko narratibak dituen hiru nagusiak, hain zuzen, kontakizun mota hori honelakoa baita:

3.1.1. Noranzko bakarreko irakurketa

Inprimatutakoetan ez bezala, ikus-entzunezko infografikoetan ez dago kezkarik zer noranzkotan kontsumituko duen irakurleak. Sinpleki, edukiak *gertatzen* dira, eta tinkoa den dimentsio horretan –denboran– ordenatzen dira. Beraz, ikus-entzulea ez da inoiz nahasiko zer gertatzen den lehen eta zer geroago. Baina, arrazoi horregatik ere, esploratzean ez dauka aukerarik hautatzeko zer ibilbideri jarraitu infografikoan, hura zuzenean garatzen baita beraren begien aurrean. Inprimatutako grafikoak baino joera pasiboago batez kontsumitzen dira ikus-entzunezkoak.

3.1.2. Iraupenagatiko menpekotasuna

Ikusi dugunez, bere behar informatiboen arabera irakurleak nahi adina denbora erabil dezake inprimatutako infografikoaren azalpenak ulertzeko, edo horren zati konkretu bakoitza irakurri edo gozatzeko, baita zer zati irakurri edo ez hautatzeko. Ikus-entzunezko infografikoan, ordea, ikus-entzule guztiek iraupen berdina ikusiko dute. Beraz, *Titanic* itsasontziaren hondoratzearen inguruko ikus-

entzunezko infografiko bat kontsumitzean, publikoak ezin izango du azalpenen batean atzera jo, edo Manchester United joko-eskema ulertu ez badugu, edo Boeing 737 hegazkinaren larrialdietako jarraibideen bideoan zehar, esaterako hasiera zein bestelako zatirik galdu egin badugu. Grafikoaren ulergarritasuna kolokan egon liteke, bai osotasunean bai zatiren batean. Hori guztia nahikoa izango ez balitz, gogora dezagun ikus-entzule bakoitzaren ulermen-erritmoa ez dela berdina.



22. IRUDIA

***Madrilgo Barajas aireportuan 2008an gertatutako istripuaren simulazioaren
fotograma***

Iturria: www.telemadrid.es (2011ko uztaila)


Hori guztia dela eta, pantailarako pentsatutako infografikoetan testu eta datuek ahalik eta sinpleenak izan behar dute. Komunikatu nahi duten informazioak oso zehatza izan behar du, epe zehatz batez baino ez baitira irakurriak izango. Askotan, doinuarekin lagundu beharko zaie –audioak edo ahotsak–, edukia errepikatua izan dadin.

3.2.3. Etengabeko partzialtasuna

Inprimatutako infografikoa irakurtzen hasi bezain laster, lehenengo begiradatik, grafiko osoaren ikuspegi globala jasotzen genuen. Bagenekien zenbatekoa zen okupatutako espazio osoa eta, ondorioz, haren zati bakoitzaren pisu erlatiboa², eta, jarraian, zati horiek arakatu eta deskodetzen hasten ginen osotasun-ikuspegi hori galdu gabe. Ikus-entzunezko narratiban, ordea, ikuslea derrigor sekuentziala den istorio baten barruan murgilduta dago, eta murgiltze horregatik mezu osoaren ikuspegi globala izatea ezinezkoa da, behintzat erreprodukzioa bukatu

² Inprimatutako informazio grafikoa atal edo orrialdetan zatituta egoteagatik lehen begiradako ikuspegi oso hori galduko balitz, aipatutako zati bakoitza infografiko osotzat hartuko litzateke. Beraz, kasu horretan grafiko bakar bat barik, infografiko anitz lirateke.

arte. Arrazoi berberetatik posiblea da ezusteko faktoreak eta antzeko baliabideez baliatzea publikoaren arreta mantentzeko, zeren eta ikus-entzunezko kontakizunean ikuslea etengabe ziurgabetasunezko egoera kontrolatu baten barruan baitago.



23. IRUDIA

Erresuma Batuko 2007ko hauteskundearen eremaitzetako BBCren jarraipena
Iturria: www.bbc.co.uk (2011ko uztaila)

3.2. Infografikoak Interneten

Komunikazioaren ezaugarri orokorrak errespetatzeaz gainera, infografikoek euskarriari lotutako berezitasunak ere bereganatu dituzte sareko komunikabideetan, bereziki elkarreraginari eta hipertestualitateari lotutakoak, erabiltzailearentzat informazio-iturri oparagoa eta hurbilagoa izatea dakartenak. Neurri handi batean, hizkuntza multimediatikoa ondoen integratu duen kazetaritza-generoa izan da infografia. Grafiko estatikoen translazio huts bat izatetik genero espezifiko bat izatera igaro da, harik eta elementu testual, ikoniko eta soinudunak integratzen dituen genero espezifiko bihurtu den arte (Salaverria, 2005).

Internetek hipertestualitatea ekarri dio diseinu grafikoari, baina baita mugimendua ere, efektu bereziak eta soinua integratzen dituzten baliabideak, irakurlearen interakzioa bilatzen dutenak edo hiru dimentsioko efektuak sortzen dituztenak. Oro har, proiektuak pentsatzeko, eraikitzeko eta kontatzeko oso modu sakon eta konplexuak eskaini dizkio sareak infografiagileari (Valero, 2008).

Sarean, beraz, infografia ez da paper-euskarriko egiten diren diseinuen kopia huts bat edo telebistako errotuluen imitazio bat. Euskarriaz aparte, paperetik eta ikus-entzunezko aurrekarietatik bereizten duten lau ezaugarri eskaini dizkio

Interneteko kazeta-produktuen diseinuak infografiari (Salaverria eta Sancho, 2007 :208):


- a) Nabigazioa irakurketaren kontra: argitalpen inprimatuak ez bezala, ziberkomunikabideak ez daude diseinatuta ondoz ondoko irakurketa lineal bat egiteko, kontsulta libre eta ez-lineal bat egiteko baizik. Irakurketa sustatzen duen eredu baten aurrean — liburua eredu nagusi duena—, ziberkomunikabideek nabigazioa sustatzen duen eredu bat bultzatzen dute. Erabiltzaile bakoitzak bere ibilbide hipertestuala aukeratzen du komunikabideek eskaintzen dizkioten aukeren artean.
- b) Multimedia *bimediaren* kontra: XIX. mendeko aldizkari ilustratuetatik hasita gaur arte, egunkari eta aldizkariak *bimedia*-diseinu bat erabili dute, bi hizkuntza-kode konbinatzen dituen: testuala eta ikonikoa. Kazetariak eskura dituen baliabide espresiboen paleta, aldiz, margoz bete da Internetekin, testua, irudiak eta soinuak uztartuz.
- c) Sakontasuna hedakuntzaren aurka: kazetaritza-diseinuarentzat, euskarrien hedapenaren muga oztopo gaindiezin bat izan da, harik eta sarera iritsi den arte. Denbora- eta espazio-mugak desagertu dira.
- d) Arkitektura diseinuaren kontra: tradizio luzea eta hedabidearen heldutasuna direla medio, estetikaren garrantzia handia da, gaur egun, papereko diseinuan. Interneten, aldiz, estetikaren garrantzia baztertu gabe, moduz azkar, erraz eta bideratu batean nabigatu ahal izatea da diseinatzailearen ardua nagusia.

Ezaugarri horiei esker, eta, genero txiki edo osagarritzat hartzen duten iritzien gainetik, kazetaritzako genero bisualen artean indar handia hartu du infografiak sarean. Ia edozein motatako eduki baten kontakizuna egiteko gai dela erakutsi du; modu zehatz, zorrotz eta ulergarri batean, gainera.

Aurrekoa baztertu gabe, eta, haren izaera bisualak bultzatuta, badirudi infografiak kazetaritza-kontakizun oso baten euskarri moduan erabiltzen direnean —eta ez osagarri edo laguntzaile gisa— egokiagoak direla informazio- eta argumentazio-generoak adierazteko, interpretatzaileak edo dialogikoak baino. Zalantzarik gabe, elkarrizketa edo iritzi-artikulu batek bide neketsuagoa topatzen du diseinu grafikoaren baliabide espresiboen artean, albiste edo erreportaje batek baino (Valero, 2008).

Hori bai, berezitasunak berezitasun, hedabideetako infografia digitalari beste edozein kazeta-produkturi eska dakioken izaera berbera exijitu behar zaio, hau

da, gaurkotasuna, zehaztasuna eta erabilgarritasuna, baita informazio-iturriak kontrastatzea eta kazeta-elementuak ezaugarri estetikoari gailentzea ere.



24. IRUDIA

Ikastaro honetan erabilitako terminoen adierazpen grafikoa, Wordle programa erabilia

Iturria: egileek moldatua

Erabilera horren adibide dugu eitb.com-eko “Partikula azeleragailuak eta LHC” infografikoa, gaurkotasun iraunkorra duen gai baten adibide klasiko bat baita. Hilabeteetan zehar albiste dosi iraunkorra ematen duen gai nagusi baten erakusle gisa, esfortzu informatibo berezia egitea dakar, eta horrek, aldi berean, hilabete luzez interesa mantentzea dakar.

Papererako eta sarerako egiten diren infografiak elementu komun asko dituzten arren, sarekoek badituzte protagonismo berezia ematen dieten elementu espezifiko batzuk. Lehenik eta behin, infografia digitalak elkarreragina bilatzen du erabiltzailearekin. Jarrera aktibo horrek —grafikoak eskaintzen dituen aukerak baliatzen ditu, edo, besterik gabe, eskaintzen zaizkion aukeren artean aurrera egiten du— irakurlearen arreta estu lotu eta mezu informatiboaren ezinbesteko parte bihurtzen du. Azaleko interesetik haratago, irakurlearen parte-hartzeak datuak bereganatzeko erraztasuna handitzen du.

Bigarren ezaugarri espezifiko nagusia multimediatasuna da. Datuen bisualizazio arrakastatsu bat lortzeko bidean, ezaugarri horrek mugimenduaren dimentsioa eransten die infografikoei, irakurlearen arreta bereganatzen laguntzeko. Mugimendu horrek, paperaren estatikotasunaren aurrean, deskribatzen den

errealitatean gertatzen diren mugimenduak imita ditzake, edota bideo osagarriak atal espezifikoetan jarri.

Partikula azeleragailuak eta LHC | Materia eszenak

Partikula azeleragailu batean, karga elektronikoa duten partikulek (elektroiak edo ioiak) abiadura handia hartzen dute.

Partikula azeleragailuak eta LHC | Materia eszenak

Izarrek, planetak, itsasoak, airea, gizakiak... inguruan dugun guztia **materialiaz** egina dago.

Partikulen fisika materiaren oinarritako osagaiak eta horien arteko elkarrekin aztertzen dituen Fisikaren adarra da.

Partikula hauetako asko **partikula azeleragailuetan** eragiten diren talka handietan baino ezin dira ikusi.

Partikula azeleragailuak eta LHC | CERN eta LHC eszenak

Azeleragailuak / Detektagailuak

- Azeleragailu linealak
- Azeleragailu zirkularra (PSB)
- Protoi sinkrotroia (PS)
- Protoi supersinkrotroia (SPS)
- LHCren zirkulu handia

Partikula azeleragailuak eta LHC | CERN eta LHC eszenak

Hadroien Talkagailu Handia, LHC (Large Hadron Collider)

CERNen (Conseil Européen pour la Recherche Nucléaire) dago, partikulak ikertzen dituen munduko laborategi handienean, hain zuzen.

6 kilometro karratun hartzen ditu, Frantziako eta Suitzako mugaren bi aldeetan banatuta.

Partikula azeleragailu eta talkagailu handi hau Eredu Estandarra izenekoaren balioa eta mugak aztertzeko erabiltzen da.

LHCn Big Bang edo Leherketa Handiaren lehen unek erreproduzitu nahi dira, Unibertsoaren misterioak aztertzeko eta ulertzeko.

25. IRUDIA

Grafiko interaktiboa: "Partikula azeleragailuak eta LHC"

Iturria: eitb.com (2010)


Hipertestualitateak, azkenik, infografikoak eskain dezakeen informazioa kapatan antola dezake. Horri esker, informazioaren irakurketa maila bat baino gehiago egon daiteke, irakurle bakoitzak dituen interesen arabera. Ez dago, beraz, infografiko bat, irakurle bakoitzak haren gainean egindako irakurketa edo begirada bat baizik.

Interneteko berehalakotasunak eta edukien etengabeko berrikuntzak ere aldaketak ekarri ditu eguneroko infografietan. Alberto Cairok adierazi duen bezala, garrantzi handiko albisteetan, hedabideetako infografikoek izaera dinamiko bat dute, ordu gutxiko espazio batean aldaketa handiak izan ditzakeena. Papereko egunkarietan, oinarri den itxiera-ordua desagertzen da, etengabeko berrikuntza baten mesedetan: euskarri grafikoak etengabe aldatzen da, informazio fidagarria eskuratu ahalako erritmo bakarrari jarraituz. Horrek grafikoak kateatzea ekarri ohi du. Kokapen-mapa txiki bat bezala hasten dena osatu egiten da orduak igaro ahala, nortasun propioa duen grafiko interaktibo bihurtzeraino (Cairo, 2004).



3.3. Grafiko interaktiboak

Ikus-entzunezko infografikoak bezala, interaktiboek ere euskarri bera erabiltzen dute; ordenagailuaren monitorea baita edozein tramankulu elektronikotako pantaila, baina, hirugarren grafiko mota honetan erabiltzaileak erreprodukzio-interfazearekin interaktuatzeko abagunea dauka. Interaktibotasun-mailarik baxuenetik –adibidez, erreprodukzioa eten, atzeratu edo aurreratzeko aukeratik– Interneteko nabigatzaileen bitartez zein bestelako interfaze digitalen bitartez ikusiak izateko pentsatutako infografikoen konplexutasun altuenera.



26. IRUDIA

The New York Timesek Interneterako infografiko interaktibo hori publikatu zuen 2010ean. Bertan erabiltzaile bakoitzak argitu dezake bere etxea erostea ala alokatzea gehiago komeni zaion, bakoitzaren datuak eta egoera zehatzaren arabera.

Interaktibotasunaren adibiderik konplexuenetarikoa dugu hori.


Iturria: www.nytimes.com (2011ko uztaila)

Infografiko mota horietan erabiltzaileak mugimendu-askatasun handiagoa lortzen du, eta edukietan nabigatzeko gaitasuna du. Horri esker, infografiko interaktiboak ikus-entzunezkoen hiru muga horiek gainditu egiten ditu:

3.3.1. Noranzko anitzekoa

Erabiltzaileak infografikoan zehar noranzko askotan atzeratu edo aurreratu dezake erreprodukzioa noiznahi. Horrek behartzen ditu infografiagileak diseinatzeraz nabigazio modu intuitibo bat erabiltzaile potentzialen kopuru handi batentzat. Era berean, irakurketa-ordena aukera anitzekin prestatu beharko du. Batzuetan, erabiltzailea infografikoaren zati batzuetatik besteetara era ez-

ordenatuan salto egingo duenez –fase horiek segidakotzat ezin har ditzakegu hemen–, infografiagilearen bi kezka nagusietarikoak hauek izango dira: Erabiltzailea gal ez dadila atal horietatik guztietatik pasatzean, eta grafikoa guztiz ulergarria izan dadila osotasunean, nahiz eta irakurketa hori desordenatua izan.




27. IRUDIA

Frantziako Tourraren 2011ko ibilbide osoaren inguruko infografiko interaktiboa.
Nahi dugun ordenan edo bakarrik interesatzen zaigun etapa kontsulta dezakegu.
Iturria: www.elmundo.es (2011ko uztaila)

3.3.2. Denbora faktoretik independentea

Irakurlearen esku dagoenez grafikoaren zer alderdiri arreta gehiago jarri eta denbora gehiago eskaini eta beste zer atal ez irakurri, infografiagileak azkenik muga horren inguruko kezka albo batera uzten du. Horrela, beharrezkoa bada nahi adina informazio eta datu –testual zein ikonografiko– sartu ahal izango du, orain jakin baitaki irakurle bakoitzak irakurketa-eritmoa moldatuko duela bere gustu edo gaitasunera. Horrela, infografiko interaktiboak inprimatutakoaren aukera berberak eskaintzen ditu beharrezkoa denean.



28. IRUDIA

47 esne-marka analizatu zituen EroskiConsum aldizkariak, hain zuzen ere, bakoitzaren 13 alderdi. Guztira, 600 datu baino gehiagoko emaitza horiekin El Mundo.es goiko infografiko interaktibo hori prestatu zuen. Bertan, erabiltzaileak erraztasun osoz analiza ditzake datuak. Bakarrik 'kaltzio' arloan zein diren onenak jakin nahi badugu, nahikoa da arlo horretan klik egitea, eta datuak automatikoki bistaratuko zaizkigu.

Iturria: www.elmundo.es (2011ko uztaila)

Goiko adibide horrek dakarren informazio kopurua itzela da. Ezinezkoa litzateke halako datu mordoak paperezko komunikabide batean argitaratzea era eroso batean, ezta telebistarako laburpenik prestatzea ere. Euskarri ezin hobea dugu interaktiboa datu-base zabalak era irakurgarrian erakutsi ahal izateko.

3.3.3. Osotasun-ikuspegia edo lehen irakurketa globalaren aukera

Interaktiboa *bizirik* dago. Infografiagileak, hala nahi badu, posiblea du erakustea lehen unetik zein izango diren grafikoaren luzapena, tamaina edo pisua, bai osoa bai erlatiboa zati bakoitzean, eta horrek lagunduko du erabiltzaileak etengabe kokatuta senti daitezen. Berez, nabigazio-interfazea da infografiko orok izan behar duen elementu osagai ezinbestekoenetariko bat, eta balio behar du ez bakarrik alde batetik gainerako guztietaraino mugitu ahal izateko, baizik eta, gainera, goitik ikusitako mapa balitz bezala, beti kokatuta senti gaitzen laguntzeko. Horrela, interaktiboaren testuinguru globalaren barruan zati bakoitzak zer garrantzi, pisu erlatibo, kokapen eta presentzia duen adierazi behar digu.

Erreferentziak

- Borrás, L. et al. (2000). "Infototal, inforrelato e infopincel. Nuevas categorías que caracterizan la infografía como estructura informativa". *Revista Latina de Comunicación Social*, 35.
- Cairo, A. (2004). [Coberturas infográficas de actualidad inmediata](http://www.albertocairo.com). In <http://www.albertocairo.com>.
- Cairo, A. (2008). *Infografía 2.0. Visualización interactiva de información en prensa*. Madrid: Alamut.
- Cairo, A. (2011). *El arte funcional. Infografía y visualización de la información*. Madrid: Alamut.
- Larrondo, A. & Serrano, A. (ed.) (2007). *Diseño periodístico en Internet*. Bilbo: UPV/EHU.
- Peña, S., Pérez, J. Á. & Genaut, A. (2010). [Tendencias en el diseño de los diarios vascos y navarros en Internet](#). *Mediatika*, 12, 105-137.
- Salaverría, R. (koord.) (2005). *Cibermedios*. Sevilla: Comunicación Social.
- Smiciklas, M. (2012). *The Power of Infographics*. Pearson: Indianapolis.
- Valero, J. L. (2000). [La infografía de prensa](#). *Latina*, 30.
- Valero, J. L. (2008). [La infografía digital en el ciberperiodismo](#). *Latina*, 63.
- Yuste, B., Sandoval, M. T. & Franco, G. (2006, azaroa). [Uso de la fotografía y la infografía en los medios digitales](#). III Congreso Online Observatorio para la cibernsiedad jardunaldian aurkeztutako komunikazio idatzia, Bartzelona.